

@@@1139/2015 EBAZPENA, maiatzaren 28ko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide taldeko medikuen kategorian (familiako medikuntzako lanpostu funtzionala) lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onetsi dira.@@@

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 28ko 1135/2015 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko 2014an eta 2015ean deitu diren hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi dira.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da kategoria bakoitzeko destinoei buruzko deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak argitaratzea.

Horregatik, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Osasun zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak eta Osakidetza Ente Publikoko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoarekin eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoarekin bat etorri, honako hau

#### EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Oinarri hauen xede diren hautaketa-probak deitzea.

Bigarrena.- Medikuen kategorian (familiako medikuntzako lanpostu funtzionala) lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onestea, I. eranskinean agertzen direnak. Aipatutako kategoria fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide taldekoa da, eta destinoak Osakidetzako-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetakoak izango dira.

Hirugarrena.- Ebazpen honekin batera agertzen den II. eranskinean eskainitako destinoen zerrenda onestea.

Laugarrena.- Merezimenduen baremoa onestea, ebazpen honen III. eranskinean dagoena.

Bosgarrena.- Dagokion gai zerrenda onestea, ebazpen honen IV. eranskinean dagoena.

Seigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekursoa jar daiteke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epearen barruan, ebazpenea EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezartzen baitute lege eta dekretu hauek: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea eta Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko maiatzaren 28an.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia.  
JON JOSEBA ETXEVERRIA CRUZ  
ZUZENDARI NAGUSIA  
DIRECTOR GENERAL



## I. ERANSKINA

MEDIKUEN KATEGORIAN (FAMILIAKO MEDIKUNTZAKO LANPOSTU FUNTZIONALA) OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAN LOTURA ESTATUTARIO FINKOA LORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK. AIPATUTAKO KATEGORIA FAKULTATIBO MEDIKO ETA TEKNIKOEN LANBIDE TALDEKO DA, ETA DESTINOAK OSAKIDETZAKO-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKOAK IZANGO DIRA.

### 1.- DEIALDI HONETAN ESKAINTZEN DIREN DESTINOAK

1.1.- Deialdi honen xede izango dira medikuen kategoriako (familiaiko medikuntzako lanpostu funtzionala) destinoak. Aipatutako kategoria fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide taldeko da, eta destinoak Osakidetzako-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetakoak izango dira, II. eranskinean bilduak.

1.2.- Deitutako destinoen % 7 gordeko dira desgaitasuna duten langileek betetzeko, oinarri orokoren 1.3 oinarrian ezarritako banaketaren arabera. Horiek II. eranskinean adierazi dira.

### 2.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Izangaien ebatzen honetan arautzen den deialdian parte har dezaten, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean oinarri orokorretan eskatzen diren baldintzez gain, beste hauek ere bete beharko dituzte, oinarri orokorretan jasotzen diren salbuespenak izan ezik, eta, hala bada, destinoaz jabetu arte mantendu behar dituzte:

a) Hurrengo tituluak edukitzea edo lortzeko moduan egotea: Medikuntza eta Kirurgiako Lizentziaturaren titulua, eta Familia eta komunitateko medikuntzako espezialistarena, eta Osasun Sistema Nazionalean medikuntza orokorreko medikuen funtziei buruzkoa den ekainaren 4ko 853/1993 Errege Dekretuak ezarritako titulu, egihtagiri edo diplometako bat, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinak ezarritakoaren arabera.

b) Edozein kasutan ere, lortu nahi den lanpostuaren baldintzak bete behar dira, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak ezarritakoaren arabera eta indarrean dagoen araudiak ezarritako beste edozeinen arabera.

c) Inskripzio-eskubide hauek ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epearen barruan, eskainitako destinoen titulazio-taldearen arabera:

A1 taldea (antzinako A taldea): 25 euro

### 3.- OPOSIZIO-LEHIAKETAREN NONDIK NORAKOA

#### 3.1.- Oposizioaldia

Epaimahaiai dagokio probaren edukia eta iraupena zehaztea. Galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehieneko denboraren barruan, eta galderak IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira.

Era berean, aipatutako eranskinean bibliografia ere sartuko da proba prestatzeko.

3.2.- Oinarri orokoren 14. oinarrian ezarritako puntuazio hurrenkeraren arabera izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, I. eranskinean agertzen diren izangaien honako dokumentu hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, baita 14.2 oinarrian aipatzen den dokumentazioa ere:

Ondoko agirion fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza: Medikuntza eta Kirurgiako Lizentziatura eta lanpostu funtzionala gauzatzeko eskatzen den edozein espezialitatetako titulua edo Osasun Sistema Nazionalean medikuntza orokorreko medikuen funtziorei buruzkoa den ekainaren 4ko 853/1993 Errege Dekretuak ezarritako titulu, egihtagiri edo diplometako bat, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinak ezarritakoaren arabera.

### 3.3.- Lehiaketaldia

Egiaztatutako merezimenduak III. eranskineko merezimenduen baremoaren arabera balioztatuko dira, oinarri orokretan ezarritako irizpideen arabera.

### 3.4.- Lanpostuaz jabetzea

Oinarri orokorretako 17. atalean aipatutako dokumentazioaz gain, deialdi honen xede diren destinoetako baten batez jabetzen direnek ondorengo agiria aurkeztu beharko dute jabetzeko ekitaldian:

- Elkargoko kide izatearen ziurtagiria.

## II. ERANSKINA

### DESTINOEN ZERRENDA. KATEGORIA: MEDIKUA LANPOSTU FUNTZIONALA: FAMILIAKO MEDIKUNTZAKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA

Osakidetzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 28ko 1135/2015 Ebazpenak onetsitako oinarri orokoren 1. oinarrian ezarritakoaren arabera, honako destino hauek deitu dira:

- Barne-sustapeneko txandaren deialdia: 24 destino

Sarbide orokorra: 22

Desgaitasuna duten langileentzako erreserba-kupoia: 2

Adimen-desgaitasuna dutenentzako erreserba-kupoia: 0

Bestelako desgaitasuna dutenentzako erreserba-kupoia: 2

- Txanda irekiaren deialdia: 88 destino

Sarbide orokorra: 82

Desgaitasuna duten langileentzako erreserba-kupoia: 6

Adimen-desgaitasuna dutenentzako erreserba-kupoia: 0

Bestelako desgaitasuna dutenentzako erreserba-kupoia: 6

Adimen-desgaitasuna duten langileentzako destinoak hautaketa-prozesua gainditzen duten izangai nahikorik ez egoteagatik betetzen ez badira, destino horiek desgaitasuna duten langileentzako erreserba-kupora gehituko dira.

Desgaitasuna duten langileentzako destinoak hautaketa-prozesua gainditzen duten izangai nahikorik ez egoteagatik betetzen ez badira, destino horiek dagokion txandako (barne-sustapena edo txanda irekia) sarbide orokorreko lanpostuetara gehituko dira.

2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoak hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratzean zehaztuko dira.

### III. ERANSKINA

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAN DESTINOA DAUKATEN FAKULTATIBO MEDIKO ETA TEKNIKOEN LANBIDE TALDEKO MEDIKUEN KATEGORIAREN (FAMILIAKO MEDIKUNTZAKO LANPOSTU FUNTZIONALA) MEREZIMENDUEN BAREMOA

##### 1) LAN ESPERIENTZIA: 45 puntu, gehienez.

Eskabideak aurkezteko azken egunera arte izangaien aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

1.- Osakidetzako, Gizarte Segurantzako eta autonomia-erkidegoetako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, edozein herri administraziotan, baita Europar Batasuneko beste estatuetako sare publikoko zerbitzu sanitarioetan ere, lehiatzen den kategoria berean, kupoko eta zonako mediku orokor gisa, Etengabeko Arretako Guneko mediku orokor gisa eta Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko mediku orokor gisa lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,20 puntu.

2.- Osakidetzako, Gizarte Segurantzako eta autonomia-erkidegoetako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, edozein herri administraziotan, baita Europar Batasuneko beste estatuetako sare publikoko zerbitzu sanitarioetan ere, ospitaleko larrialdietan, emergentzietaiko lurralteetan eta etxeko ospitalizazioan mediku gisa, barne medikuntzako mediku gisa, Lehen Mailako Arretako pediatra gisa edo ikerlari gisa lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,10 puntu.

3.- Osakidetzako, Gizarte Segurantzako eta autonomia-erkidegoetako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, edozein herri administraziotan, baita Europar Batasuneko beste estatuetako sare publikoko zerbitzu sanitarioetan ere, legez onartutako beste edozein espezialitatetan mediku gisa lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,05 puntu.

Etengabeko arretako behin-behineko izendapen batean egindako zerbitzuen puntuazioari zerbitzu horiengatik normalean ematen den puntuazioaren % 50 aplikatuko zaio.

Landa-eremuetan Lehen Mailako Arretan errefortzu-izendapena duten langileek egindako zerbitzuak kalkulatzeko, egindako zerbitzuen hilabete osoa aitortuko zaie, ondorengo arauen arabera kalkulatuta:

- a) Hilabete bat, edo proportzionalki dagokiona, egindako ehun eta berrogeita bost ordu edo zati bakoitzeko.
- b) Hilabete natural batean ehun eta berrogeita bost ordu baino gehiago eginez gero, hilabete bat bakarrik baloratuko da, eta soberako orduak ezin izango dira emandako zerbitzuen konputurako aplikatu a) arauak dioenenaren arabera.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituta egingo da, eta baztertu egingo dira hilabetetik beherako soberakinak. Hilabetea osatzeko, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da.

Barne-sustapeneko txandan lehiatzen direnei honela zenbatuko zaizkie aurretiko zerbitzuak:

- a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,02 puntu hilabete bakoitzeko.
- b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,03 puntu hilabete bakoitzeko.
- c) C taldean eskainitako zerbitzuak: 0,04 puntu hilabete bakoitzeko.
- d) B taldean eskainitako zerbitzuak: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko.
- e) A taldean eskainitako zerbitzuak: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko.
- f) Lehiatzen den lanpostu berean egindako zerbitzuak: 0,20 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu eginkizunetan edo goragoko kategoriako funtziean eskainitako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, zerbitzu berezietako egoeran eskainitako zerbitzuak jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira.

## 2) PRESTAKUNTZA, IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA (35 puntu, gehienez):

Atal honen barruan ondokoaren arabera egiaztatzen den prestakuntza baloratuko da:

- a) Graduau aurreko prestakuntza (5 puntu, gehienez):

Espediente akademikoaren balorazioa honela lortuko da ondorengo hipotesien kasuan:

$$\frac{(\text{bikain kopurua X } 6) + (\text{Ohorezko matrikula kopurua X } 9)}{\text{Irakasgai guztien kopurua}}$$

Ez dira ebaluatuko eta, horrenbestez, ez dira zatitzalean agertuko ondorengo ikasgaiei dagozkien kalifikazioak edo baliozketze ofizialaren helburu izan direnak: erlijioa, heziera politikoa, heziketa fisikoa, hizkuntzak, edo Medikuntzako Lizentziaturaren ikasketen oinarrizko edukiarekin lotura nabarmenik ez duten beste ikasgai batzuk.

- b) Grado ondoko prestakuntza (18 puntu, gehienez):

- Doktorea: 15 puntu
- Cum laude doktorea: 18 puntu
- Grado ondoko masterra: 7,5 puntu
- Unibertsitate-aditua edo -espezialista: 5 puntu
- Ikertzeko nahikotasuna edo Diploma ikasketa aurreratuetan: 5 puntu
- Lizentziaturako gradu (bikaina edo ohorezko matrikula): 3 puntu
- Doktoretza-ikastaroa, ikastaro bakoitzeko (10, gehienez): 0,50 puntu
- Lotutako goi-mailako beste titulazio bat: 4 puntu

Doktore titulua, cum laude doktore titulua, ikertzeko nahikotasuna edo ikasketa aurreratuetako diploma lortzeko balio izan duten programetako doktoretza-ikastaroak ez dira baloratuko.

c) Prestakuntza espezializatua:

1.- Familia eta komunitateko medikuntzako espezialitatean prestakuntza aldi osoa egoiliar gisa bete duten goi-mailako tituludunak: 15 puntu.

2.- Familia eta komunitateko medikuntzako espezialitatean prestakuntza aldi osoa egoiliar gisa graduondokoentzako irakaskuntza programa onartua duen atzerriko zentro batean bete duten goi-mailako tituludunak, titulua Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak baliokidetuta badu: 15 puntu.

3.- Familia eta komunitateko medikuntzako espezialitateko titulua lortzeko hobekuntza ikastaroa gainditu duten goi-mailako tituludunak, 264/1989 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera, eta Familia eta komunitateko medikuntzako espezialitateko titulua lortzeko prestakuntza osagarria egin eta ebaluazio kliniko objektibo egituratua gainditu duten goi-mailako tituludunak, uztailaren 31ko 1753/1998 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera: 5 puntu.

4.- Beste espezialista-titulu bat edo batzuk dituzten izangaiak, betiere titulu horiek BAME programako egoiliar gisa prestakuntza aldian lortutakoak badira, edo graduondokoentzako irakaskuntza programa onartua duen atzerriko zentro batean prestakuntza aldi osoa bete badute: 1 puntu.

5.- Espezialistako beste titulu bat edo batzuk dituzten izangaiak (BAME bidez ez): 0,5 puntu.

d) Etengabeko prestakuntza (20 puntu, gehienez):

Eskatutako destinoko kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

- 9 orduko edo hortik beherako ikastaroak:	0,25 puntu
- 10-19 orduko ikastaroak:	0,75 puntu
- 20-29 orduko ikastaroak:	1,25 puntu.
- 30-49 orduko ikastaroak:	2 puntu
- 50-99 orduko ikastaroak:	3 puntu
- 100-249 orduko ikastaroak:	4 puntu
- 250-599 orduko ikastaroak:	5 puntu
- 600 orduko edo hortik gorako ikastaroak:	6 puntu

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu kopurua besterik adierazten ez den kasuetan, puntuazioa emateko orduan, era honetan erabakiko da kreditu eta orduen arteko baliokidetasuna:

- ECTS Europako kreditu sistemako kreditu bakoitzeko, 25 ordu
- Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen kreditu bakoitzeko, 10 ordu

Alderantziz, kreditu eta orduen arteko baliokidetasun hori bestelakoa denean, edo ikastaroaren ziurtagirian adierazitako kredituak ez direnean aurreko atalean zehaztutako berak, edota agirian ez bada zehazten ikastaroaren iraupena edo kreditu kopurua, epaimahaiak, aurkezta zaizkion ziurtagiriak eta ikastaroaren edukiak aztertu ondoren, dagokion puntuazioa emango dio izangaiari; betiere, 0,25ekoa edo hortik gorakoa.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek, eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarteko zientifikoek egiaztatutako/ziurtatutako ikastaroak balioztatuko dira,

baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta egiaztatutako/ziurtatutako ikastaroak ere, betiere titulazio ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

Etengabeko prestakuntzari dagokionez –aurreko ataletan ezarritako baldintzakin bat datorrena–, 500 ordu baloratuko dira urte bakoitzeko, gehienera jota, ordutan zein kreditutan ziurtatuta daudela ere.

e) Irakaskuntza jarduera (10 puntu, gehienez):

- Fakultateko / Unibertsitate Eskolako katedraduna (urteko): 1 puntu
- Fakultateko / Unibertsitate Eskolako irakasle titularra edo elkartua (urteko): 0,50 puntu
- Hala denean, dena delako espezialitateean egoiliarrentzako irakaskuntzan akreditatutako tutorea (urteko): 0,750 puntu
- Irakaskuntza etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduko): 0,050 puntu

f) Jarduera zientifikoak eta ezagutza hedatzekoak (15 puntu, gehienez):

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak, txosten-aurkezpenak, komunikazioak, hitzaldiak edo mahai-inguruak egiteagatik:

- Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0,50 puntu
- Estatuko txosten bakoitzeko: 2 puntu
- Nazioarteko txosten bakoitzeko: 3 puntu
- Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,30 puntu
- Estatuko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1,20 puntu
- Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 2 puntu
- Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,40 puntu
- Estatuko mahai-inguru bakoitzeko: 1,50 puntu
- Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 2,50 puntu
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk) 1 puntu
- Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 4 puntu
- Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 2 puntu
- Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu
- Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu
- Tesinako: 3 puntu

Ez da baloratuko atal honetan zehaztu ez den merezimendurik.

g) Hizkuntzak (10 puntu, gehienez):

- Ingelesa: 6 puntu, gehienez.
- Frantsesa: 6 puntu, gehienez.
- Alemana: 6 puntu, gehienez.

h) Informatika ezagutzak (2 puntu, gehienez).

## 3) EUSKARA.

- 2. HE: 18 puntu
- 1. HE: 9 puntu

## IV. ERANSKINA

**FAMILIAKO MEDIKUEN GAI-ZERRENDA****I. GAI-ZERRENDA OROKORRA**

1. – Osasunaren Lehen Mailako Arreta. Osasunaren eta gaixotasunaren ikuspegi biopsikosoziala.
2. – Jarduera kudeatzea eta antolatzea Lehen Mailako Arretako taldean. Talde-lana.
3. – Osasunaren ekonomia. Oinarrizko kontzeptuak: efikazia, efizientzia, eraginkortasuna eta ekitatea.
4. – Ikerkuntzaren oinarrizko estatistika eta metodologia Lehen Mailako Arretan.
5. – Osasunerako prebentzioa, sustapena eta heziketa. Prebentzio-jarduerak egiteko eta osasuna sustatzeko programa (PAPPS). Euskadiko txertaketa-egutegia.
6. – Epidemiologia. Maiztasun-neurriak. Arriskua eta asoziazio kausala. Proba diagnostikoen eta *screening* proben baliozkotasuna.
7. – Dokumentazio klinikoa. Historia kliniko informatizatua. Ziurtagiriak. Txostenak eta parteak.
8. – Arretaren kudeaketa: Kudeaketa Klinikoa, Kalitatearen Kudeaketa. Erantzukizun profesionala. Ezintasun iragankorra. Nahitaez adierazi beharreko gaixotasunak.
9. – Ebidentzian oinarritutako Medikuntza (EOM). Praktika klinikoko Gidak.
10. – Gaixotasun terminala. Sintomen kontrola. Doluaren eta zaintzailearen arreta. Paziente, zaintzaile eta familiaren balorazioa. Erabakiak aldez aurretik planifikatzea.
11. – Familia-plangintza. Haurdunaldi arruntaren kontrola. Menopausia.
12. – Osasun-mentaleko arazoak: Depresioa. Antsietatea. Moldaera-trastornoak. Loaren trastornoak. Psikofarmakoak.
13. – Mendekotasun-arriskuko jokabideak. Tabakismoa, alkohol gehiegi hartzea, beste drogazaletasun batzuk.
14. – Gaixotasun kardiobaskularra. Arteria-hipertentsioa. Kardiopatia iskemikoa. Gaixotasun zerebrobaskularra. Bihotz-gutxiegitasuna. Patología baskular arterial eta benosoa. Sinkopea. Arritmia.
15. – Diabetes mellitusa. Obesitatea. Dislipemiak. Nutrizioa eta osasuna. Hiperurizemia.
16. – Arazo digestiboak Lehen Mailako Arretan. Errefluxu gastro-esofagikoak eragindako gaixotasuna, Ulkusa, Hepatopatia kronikoa, Idorreria, Dispepsia, Neoplasia digestiboak, Hesteetako gaixotasun inflamatorioa, Beherako akutu kronikoa, Heste narritakorraren sindromea, Uzki-ondesteko patología onbera, Alterazio biokimiko hepatikoa, Odoljario digestiboa, Abdomeneko min akutua, Pankreatitis, Gastropatia AINE-engatik.
17. – Nerbio-sistema. Semiología neurologikoa. Zefaleak. Dardara. Zorabioa eta sinkopea. Neuropatiak. Narriadura kognitiboa eta dementzia.

18. – Arnas-patologia: Asma, Biriketako Gaixotasun Buxatzale Kronikoa, Komunitatean hartutako pneumonia, Eztula, Hemoptisia, Disnea, Biriketako neoplaesiak, Arnas-miaketa funtzionala, Azterketa osagarriak (Analitika eta Erradiologia), Toraxeko mina.
19. – Dermatologia. Larruzaleko lesio elementalak eta afekzio dermiko ohikoak: Pruritoa, Larruzaleko tumoreak, Psoriasis, Larruzaleko mikosiak, Ekzemak, Aknea, Akne arrosa, Lesio Besikuloanpoilosoa, Lesio eritematosoak.
20. – Hezur eta artikulazioen patologia: Artritis, Artrosia, Osteoporosia, Lunbalgia, Sorbalda minbera, Zerbikalgia.
21. – Hematologia. Anemiak. Diagnostiko diferentziala. Tratamendu antitrombotikoa.
22. – Patologia nefrourologiko ohikoena Lehen Mailako Arretan. Gernu-infekzioak. Patologia prostatikoa. Urolitiasia. Giltzurrunetako gaixotasun kronikoa. Hematuria Proteinuria.
23. – Adinekoen arreta. Adineko ahularen eta mendekotasunaren kontzeptua; baloratzeko tresnak. Diagnostiko diferentziala eta jarrera narriadura kognitiboan eta dementziatan. Adineko pazientearen medikazioa. Beste sindrome geriatriko batzuk: Erorikoak. Gernu-inkontinentzia.
24. – Arazo infekziosoak. Tuberkulosia, Bruzelosia, Salmonelosia, Hepatitis, HIESa eta bestelako STGak: Epidemiologia, Diagnostikoa. Prebentzioa. Sukar-sindromea. Gripa. Antibiotikoen erabilera. Bidaiarientzako aholkuak.
25. – Proba diagnostikoen zentzuzko erabilera Lehen Mailako Arretan.
26. – Elkarrizketa klinikoa Lehen Mailako Arretan. Erdi-egituratutako elkarrizketa klinikoaren faseak.
27. – Osasun-arazoei familia-ikuspegitik heltzea. Familiaren bizi-zikloa.
28. – Larrialdiak eta Emergentziak Lehen Mailako Arretan: Bihotz-biriketako bizkortze oinarrizko eta aurreratua. Hiper eta hipogluzemiak. Anafilaxia. Konbultsio-krisia. Agitazioa. Intoxikazioak. Sindrome koronario akutua. Krisi hipertentsiboa. Biriketako edema akutua. Asma-krisia.
29. – ORL-patologia ohikoena Lehen Mailako Arretan. Faringoamigdalitisa, Otitisa, Sinusitisa, Bertigoa. Hipoakusia. Akufenoak. Disfonia. Errinitisa. Epistaxia.
30. – Oftalmologiako patologia ohikoena Lehen Mailako Arretan. Begi gorrituaren patologia diferentziala. Konjuntibitisa.
31. – Hiper eta hipotiroidismoa. Nodulu tiroideoa. Bozioa.
32. – Medikamentuen zentzuzko erabilera Lehen Mailako Arretan. Arrazoitutako preskripzioa. Berrikuntza terapeutikoa. Segurtasuna. Farmakozaintza.
33. – Ahoko patologia: Glositisa, Neoplaesiak, Aftak. Gaixotasun periodontala.
34. – Oinarrizko arazo traumatologikoekin jarduteko era Lehen Mailako Arretan.
35. – Bioetika. Oinarrizko printzipioak. Pazientearen autonomiari buruzko legea.
36. – Komunitateari zuzenduriko arreta. Parte-hartze eta esku-hartze komunitarioa.
37. – Genero indarkeria. Lehen Mailako Arretako profesionalen jokabidea.

## II. GAI-ZERRENDA KOMUNA

1. – Osasun Lanbideen Araudiko arau orokorrak. Osasun Lanbideetan jardutea. Profesionalen partaidetza.
2. – Osasun Sistema Nazionaleko kohesio eta kalitatearen xedapen orokorrak. Prestazioak. Kalitatea. Parte-hartze soziala.
3. – Osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren Legea: arau orokorrak. Eskubideak eta betebeharrok. Langile estatutario finkoaren izaera lortzea eta galtzea. Ordainsariak. Lanaldia, baimenak, lizentziak. Bateraezintasunak.
4. – Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legea: xedapen orokorrak. Euskadiko Osasun Sistema: Araudia eta Herritarren eskubideak eta eginbeharrok. Programa-kontratuak. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren eraketa. Zuzendaritza-antolakuntza. Gestio-araubidea.
5. – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren definizioa. Xedeak. Zuzendaritza-antolakuntza: zerrenda. Zuzendaritza Nagusia: eraketa. Zerbitzu-erakundeak: legezko aitorpena.
6. – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrok.
7. – Pazientearen autonomiaren gaineko printzipio orokorrak eta eskubideak eta betebeharrok informazio eta dokumentazio klinikoko gaietan. Informazio sanitarioako eskubidea. Intimitaterako eskubidea. Pazientearen autonomia errespetatzea. Historia klinikoa. Alta txostena eta bestelako dokumentazio klinikoa.
8. – Borondate aurreratuak osasun-eremuan.
9. – 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Datuak babestearen printzipioak. Pertsonen eskubideak. Jabetza publikoko fitxategiak.
- 10.- Osasun Sailaren Ildo Estrategikoak. 2013-2016.
- 11.- Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak. 2013-2020.
- 12.- Lerro estrategikoak eta ekintza-planak. Osakidetza. 2013-2016.
- 13.- Pazientearen Segurtasunaren Estrategia. Osakidetza. 2013-2016.
- 14.- Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak. 2013-2016.
- 15.- Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko II. Plana. 2013-2019.

## GAI-ZERRENDA OROKORRAREN BIBLIOGRAFIA

1. – *Tratado de Medicina Familiar y Comunitaria (semFYC)*.

ISBNa: 978-84-9835-585-7. Argitaratze-data: 2012ko ekaina.

2. – MARTÍN ZURRO, A.; CANO PÉREZ, JF.; GENÉ BADIA, J.: *Atención Primaria. Principios, organización y métodos en medicina de familia y Atención Primaria. Problemas de salud en la consulta de medicina de familia*, 7. argit. Elsevier, 2014.

ISBNa: 9788490228678.

3. – *Guía de actuación en Atención Primaria*, 4. argit. + autotesta + CD ROMa.

ISBNa: 978-84-15037-04-0. Argitaratze-data: 2011ko apirila.

4. – *Manual de exploración física*.

ISBNa: 978-84-15037-36-1. Argitaratze-data: 2012ko ekaina.

5. – *Guía de ayuda al diagnóstico en Atención Primaria*. 2. argit.

ISBNa: 9788496761780. Argitaratze-data: 2009ko azaroa.

6. – *Guía terapéutica en Atención Primaria*. 5. argit.

ISBNa: 978-84-15037-36-1. Argitaratze-data: 2010eko martxoa.

7. – INFAC buletin farmakoterapikoa. CEVIME Medikamentuei buruz informatzeko euskal zentroa.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkfarm02/eu/contenidos/informacion/cevime/eu\\_miez/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/cevime\\_infac/eu\\_miez/2015.html](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkfarm02/eu/contenidos/informacion/cevime/eu_miez/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/cevime_infac/eu_miez/2015.html)

8. – Lehen mailako arretako medikamentu berrien ebaluazioa. CEVIME Medikamentuei buruz informatzeko euskal zentroa.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkcevi02/eu/contenidos/informacion/cevime\\_atencion\\_primaria/eu\\_miez/medikamentu\\_berrriak.html](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkcevi02/eu/contenidos/informacion/cevime_atencion_primaria/eu_miez/medikamentu_berrriak.html)

9.- *Guía de Terapéutica Antimicrobiana del Área Aljarafe*. 2. argit.

ISBNa: 978-84-695-3060-3. Argitaratze-data: 2012.

[http://www.guiasalud.es/GPC/GPC\\_479\\_Antimicrobianos\\_Area-Aljarafe\\_2ed\\_2012.pdf](http://www.guiasalud.es/GPC/GPC_479_Antimicrobianos_Area-Aljarafe_2ed_2012.pdf)  
(gaztelaniaz)

10. – *Manual de Urgencias y Emergencias*, 2. argit.

ISBNa: 978-84-15037-23-1. Argitaratze-data: 2012ko ekaina.

11. – *Entrevista clínica. Manual de estrategias prácticas*.

ISBNa: 84-96216-44-6. Argitaratze-data: 2004ko ekaina.

[http://comunicacionysalud.es/wp-content/uploads/EntrevistaClinica\\_2004.pdf](http://comunicacionysalud.es/wp-content/uploads/EntrevistaClinica_2004.pdf) (gaztelaniaz)

12. – PAPPS, Osasuna sustatzeko ekintzen eta prebentzioko jarduera programa. 2014an eguneratua.

[http://www.papps.es/upload/file/PAPPS\\_2014.pdf](http://www.papps.es/upload/file/PAPPS_2014.pdf) (<http://www.papps.es/>) (gaztelaniaz)

13. – Euskadiko txertaketa egutegia.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/vacunas/eu\\_4045/adjuntos/calendario%20vacunal%202015%20eus.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/vacunas/eu_4045/adjuntos/calendario%20vacunal%202015%20eus.pdf)

14. – Txertaketak pertsona helduetan.

<http://www.fisterra.com/guias-clinicas/consideraciones-generales-calendario-basico-vacunaciones-adulto/> (gaztelaniaz)

15. – *Documento de consenso sobre prevención de la fragilidad y caídas en la persona mayor. Estrategia de Promoción de la Salud y Prevención en el SNS*. 2014.

[http://www.msssi.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Estrategia/docs/FragilidadCaidas\\_personamayor.pdf](http://www.msssi.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Estrategia/docs/FragilidadCaidas_personamayor.pdf) (gaztelaniaz)

16. – Ikerketa-metodología.

[Http://www.fisterra.com/mbe/investiga/index.asp](http://www.fisterra.com/mbe/investiga/index.asp) (gaztelaniaz)

17. – Ebidentzian oinarritutako Medikuntza (EOM).

– *Medicina basada en la evidencia. Cómo ejercer y enseñar la MBE*. 3. argit.

ISBNa: 9788481744408. Argitaratze-data: 2005eko azaroa.

18. – Osasun Sistema Nazionaleko Praktika Klinikoko Giden liburutegia.

Guiasalud ataria: <http://portal.guiasalud.es/web/guest/home> (gaztelaniaz)

19. – Bioetika.

<http://www.fisterra.com/formacion/bioetica/> (gaztelaniaz)

20. – 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, informazio eta dokumentazio klinikoaren arloan pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrok arautzen dituena.

21- Nola abiarazi esku-hartze komunitarioko prozesu bat osasun zentro batean?

<http://www.obsaludasturias.com/obsa/wp-content/uploads/recomendacionesPACAP1.pdf>  
(gaztelaniaz)

## GAI-ZERRENDA KOMUNAREN BIBLIOGRAFIA

- 1.- 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa.
- 2.- 16/2003 Legea, maiatzaren 28ko, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoa.
- 3.- 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoarena.
- 4.- 8/1997 Legea, ekainaren 26ko, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- 5.- 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituena.
- 6.- 175/1989 Dekretua, uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta onartzen duena.
- 7.- 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, informazio eta dokumentazio klinikoaren arloan pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharak arautzen dituena.
- 8.- 7/2002 Legea, abenduaren 12ko, Borondate Aurreratuei buruzkoa.
- 9.- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Datuak babestearen printzipioak. Pertsonen eskubideak. Jabetza publikoko fitxategiak.
- 10.- Osasun Sailaren Ildo Estrategikoak. 2013-2016.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/adjuntos/lineas\\_estrategicas\\_%20euskeria.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/lineas_estrategicas_%20euskeria.pdf)

- 11.- Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak. 2013-2020.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/adjuntos/osasun\\_plana\\_2013\\_2020.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/osasun_plana_2013_2020.pdf)

- 12.- Lerro estrategikoak eta ekintza-planak. Osakidetza. 2013-2016.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkpbl02/eu/contenidos/informacion/osk\\_publicaciones/eu\\_argital/adjuntos/estrategia/llerroEstrategikoakOsakidetza.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkpbl02/eu/contenidos/informacion/osk_publicaciones/eu_argital/adjuntos/estrategia/llerroEstrategikoakOsakidetza.pdf)


13. - Pazientearen Segurtasunaren Estrategia. Osakidetza. 2013-2016.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_publicaciones/eu\\_argital/adjuntos/publikoa/SeguridadPacienteEu.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_publicaciones/eu_argital/adjuntos/publikoa/SeguridadPacienteEu.pdf)

- 14.- Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak. 2013-2016.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/adjuntos/l\\_e\\_sociosanitarias\\_eu.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/l_e_sociosanitarias_eu.pdf)

- 15.- Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko II. Plana. 2013-2019.



Osakidetza

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_euskera/eu\\_osk/adjuntos/euskararenPlanaEu.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_euskera/eu_osk/adjuntos/euskararenPlanaEu.pdf)

@@@RESOLUCIÓN 1139/2015, de 28 de mayo, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se aprueban las bases específicas que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Médico (puesto funcional de Médico de Familia) del Grupo Profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.@@@

Mediante Resolución 1135/2015, de 28 de mayo, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se han aprobado las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud convocados en los años 2014 y 2015.

Para la materialización de cada proceso selectivo es necesaria la publicación de las bases específicas que han de regir la convocatoria de destinos de cada categoría.

Por ello, de conformidad con lo establecido en la Ley 8/1997, de 26 de junio de Ordenación Sanitaria de Euskadi, la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, del Estatuto Marco del personal estatutario de los servicios de salud, la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, el Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, y demás disposiciones de vigente aplicación.

**RESUELVO:**

Primero.- Convocar las pruebas selectivas que son objeto de las presentes bases.

Segundo.- Aprobar las bases específicas, que figuran como Anexo I, que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Médico (puesto funcional de Médico de Familia) del Grupo Profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Tercero.- Aprobar la relación de destinos ofertados mediante el Anexo II que acompaña a la presente Resolución.


Cuarto.- Aprobar el baremo de méritos que figura como Anexo III de la presente Resolución.

Quinto.- Aprobar el temario correspondiente que figura como Anexo IV de la presente Resolución.

